

## **Alemanak Ameriketan**

E.: eta, beraz, Ameiketan ori eta erran duxu, beraz, aski aitzinamendu ukan xindiela. Ez zela izan beste zonbait bezala, desertian, neor e kusi gabe, holakorik ez xindiela ukan.

M.: ez, beti nausi beraikin egon niz.

E.: eta han ere alemanak gaxtoak.

M.: ba bena hori lehen, eh! Oai fini duxu. Ba lur errepartitziak in aitzinian, gero in eta re zonbaitek denboraz, ala. Oriek ixtorio oriek intzuten gintien ango artzain xaarrer, oui, oui, ba, ba, beste atek ere han Wyoming-en, ta Mendiben sortia zen hura, eta hola-ola alemanek erran zakoten: “lekutuko hiz ortik, hur orren ondotik”, “ez nuk iten aal, nausiak hemen ezarri nik ta harek jin bea ik kanbiatzeko ni ementik”, “bihar jinen gituk eta ez baiz lekutia garbituko hugu”, eta beldurrez zoon, bere... Eta han e bazuten ttipio bena roulota ttipi bat, aterbia, ta hain barnian zoon ta ikusten tu urrunian eldu lazpost zaldiz, ta “oai duk”, ta kopeta gaxtoanak errana zakon: “besteaiñan garbituko ugu”, ta prestatu zien bere riflia, ta arribatu zielaik, bere ustez zaldiari tiratia ziela erten du, bena alemana garbitu zien, tau, hua lurreat, denek jauziak in zuzten gorputza bildu-ta, hari geiokoik galdin gabe, bana bazakiten... Bazakien eta bestek e erran zakoten, nausiak eta “oai bea uk hementik lekutu, horik ez die barkatuko, garbituko ute”, ta jin zen Kalifornian bizi zen eta bere bizi guzia egin du, benan beti beldurrez, eta berak erten ziena hua zien ikusten gizon ua erortzen, baizu, hilotz garbitu ziela, salbu hek eldu omen zien armak kargatuik, eh! Donc, hak e irrixkatuko zien (irriak), voilà, na harek beti, baizu, hua barnian zien, beldurra, ta gero edaten ta hasi zen, ta baizu, gizon bat garbituik hilotz, hara, eh oui.

E.: ze... Lotsa barnian sartia,

M.: geo bertze atzu gue tokian, hori Kalifornian gertatia, eh bena sierra ttipi bat bazen Culingoko gainian, eta han e bazen iturri bat, ta han e beti ixtorio bera gertatu zen, alemanak jin ta: “leku zizte ortik, gu gituk hemen hur untan”, ta ez, ez, artzaiñek e behar zutela, gu holako egunian, hor ardiak edanazi tiau, ez zuten egun guziz edanaazten ono, “ah, leku ementik, besteañen garbituko ziuzteu”, ta ematxatu ta azkar meatxatu. Ze in zuten? Ordian bi edo hiru artzain baitzien, batto joan zen herrirat, eskualdun bat edo beste baitzen ondoan, ta erran zeen: “hola ta ola uk”, “bon igan zizte”, ta denak hamalaueko gerlak inak zien ordukotz, arneitarrak-eta zien, eh! Hobe da ez erranik izenak, eta beti: “xiloak prestazkitzie hurain ingurian”, ta bestek abertitu zuzten nausiak eta ondo etako gerla ina zuten artzainak-eta, gauaz bildu zien haat amost bat eskualdun, ta sartu zien hurain ingurian xiloak inik, baizu, hek usatiak baitzien amalaueko gerlan, ta biamunian Errantorenean bakeroak eldu hamar bat

zaldiz, na ina zuten zaldiak bota, ta batek signal-a in ta denek tiratu ta zaldiak bota zezketen, ordian à pied ziren alemanak. Bakeroak eta hok eskiak altxatu zuzten, ez baitzuten nai... Bestiak ala ere ez zuzten ikusten, xilotan jarriak zien, eta hurain ondoan in zuten arreñamendia, ta sinatu, eh! Holako egunian ardiak, holako egunian beiak hur artan edaten, oui, geoztik bakia.

E.: geoztik bakia. Hola ibili beharra re, makur andia uxu, eh!

M.: ah ba.

#### **Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala